# HERNANI. EMAKUMEEN ETXEA:
# 4. fasea LORATU_COLLAGE TAILERRA

-2016-11-28. SAIOAREN AKTA-



**BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:**

- Data/ *Fecha*: 2016-11-28
- Lekua/ *Lugar*: Beterri
- Hasiera ordua/ *Hora de inicio:* 18:00
- Amaiera ordua/ *Hora de finalización*: 20:00

Dinamizatzaileak/ Dinamizadoras: Maitane Barrenetxea, Maider Alvarez, Ainhoa Retegi eta Miren Lanz.

# 1_AURKEZPENA/PRESENTACION

Gaurko saioa “Loratu” izeneko 4.fasearen bigarrena izan da, fase honetan Emakumeen etxearen espazioa lantzea izango da helburua.

Fase honen aurkezpen orokorra Maialen Apezetxeak egin du. Lehenik prozesuaren aurkezpen orokor bat egin du, gero prozesuaren ze puntutan gauden azaltzeko. 4. fase honetako tailerren diseinua eta dinamizazioa Hiritik at kolektiboaren esku dagola azaldu du, ondotik, Miren lanz eta Ainhoa Retegi, aipatutako kolektiboko kideak aurkeztuz.

Bestetik, behin prozesu parte hartzailea bukatuta, obra prozesuaren inguruan eman beharreko hurrengo urratsak zein izango diren azaldu du Maialenek. Emakume etxeak behar dituen aldaketa guztiak egiteko proiektu arkitektoniko bat egin beharko da, hori zeinek egingo duen erabakitzeko lehiaketa publiko bat eginez. Proiektua egin eta hurrengo urratsa obra zeinek gauzatuko duen erabakitzea izango litzateke, hortarako beste lehiaketa publiko bat eginez. Hau guztia azalduz transmititu nahi izan dena da, nahiz eta prozesu parte hartzailea urtarrilean bukatu, ezingo dela berehalakoan eraikina erabiltzen hasi, obra lanen prozesu guzti honek denbora eramango baitu.

Ondoren, Miren Lanz, Hiritik At-eko kideak hartu du hitza eta aurkezpen dinamika ttiki bat burutu du, bertaratutako bakoitzari bere izena eta adjektibo bat esateko eskatuz.

Azkenik, aurkezpen denborari bukaera emanez, saio honetan burutuko den dinamika aurkeztu du:

- Adostasunak bilatu eta funtzio orokorrak definitu
- Collage ariketa

La sesión de hoy ha sido la segunda, dentro de la cuarta fase llamada “Loratu”, en la que el objetivo ha sido la de trabajar en torno al espacio de la Casa de las mujeres.

La presentación general la ha realizado Maialen Apezetxea. Primero ha presentado el proceso en su conjunto, para después explicar en qué punto del mismo estamos. A continuación, y ya centrándose en la cuarta fase, ha explicado que tanto el diseño como la dinamización lo realizará el colectivo Hiritik at, y ha presentado a Miren Lanz y Ainhoa Retegi, trabajadoras del mismo.

Por otro lado, Maialen ha explicado cuales serán los siguientes pasos a dar una vez finalizado el proceso de participación, en relación con la obra a ejecutar en la casa. Será necesaria la elaboración de un proyecto arquitectónico para realizar las obras en la casa de las mujeres, teniendo que realizar un concurso público para decidir quién lo va a proyectar. Una vez realizado el proyecto, se deberá decidir quién

llevará a cabo las obras, teniendo que realizar para ello otro concurso público. Se ha querido dar información en torno a este tema, para dejar claro que aunque el proceso participativo finalice en enero, no se podrá empezar a usar el espacio inmediatamente, ya que los todos los trabajos mencionados anteriormente llevarán su tiempo.

A continuación, Miren Lanz trabajadora de Hiritik at ha dinamizado una pequeña dinámica de presentación, pidiendo a cada participante del taller que se presenten diciendo su nombre y un adjetivo que las/los defina.

Por último, para terminar con el tiempo de presentación, ha explicado brevemente la dinámica que se realizará:

- Buscar consenso y definir funciones generales
- Ejercicio Collage.

## 2_ADOSTASUNAK BILATU ETA FUNTZIO OROKORRAK DEFINITU/ BUSCAR CONSENSO Y DEFINIR FUNCIONES GENERALES

Ariketa egiten hasi baino lehen, proiektatutako aurkezpen baten bitartez Miren Lanz-ek aurreko saioan lortutako emaitzak aurkeztu ditu. Taula baten bidez ikusgai egon dira aurreko saioan landu ziren bost espazio/eremu ezberdinetarako aipatu ziren funtzio guztiak era ordenatu batean. Bertan, espazio berdinerako uztargarriak izan litezkeen funtzioak beltzez adierazi dira, eta alderantziz kontrajarriak direla ikusten direnak kolore gorriz.

Ariketa honen helburua, espazio/eremu konkretu horretako funtzio kontrajarri horien inguruan eztabaidatzea eta adostasun batera iristea da. Horretarako, kolore gorriz idatzitako funtzio horietan zentratu gara, eta eztabaida bideratzeko hainbat galdera planteatu dira, hiru gai nagusitan bilduta agertzen direnak.

Ondorengo irudietan, proiektatutako taula eta eztabaida bideratzeko planteatu den galdera sorta ikusi daitezke:

Antes de empezar con el ejercicio, Miren ha presentado los resultados obtenidos en la sesión anterior. A través de una tabla, se han presentado ya de una forma ordenada las funciones asignadas para los cinco espacios que se trabajaron en la sesión anterior. En dicha tabla se han podido observar las funciones de cada espacio, representando en color negro las que se veían compatibles, y en color rojo las que se tenían por incompatibles.

El objetivo de este ejercicio ha sido el de llegar a un consenso para las funciones incompatibles de un mismo espacio mediante un debate abierto. Para ello, nos hemos centrado en las funciones representadas en color rojo en la tabla, así, se han planteado algunas preguntas concretas para dar comienzo y encaminar un poco el debate.

En las siguientes imágenes se pueden ver la tabla proyectada y las preguntas planteadas para encaminar el debate:

| AULA PLANTA BAJA | AULA PRIMERA PLANTA | PATIO INTERIOR | ESPACIO EXTERIOR | COCINA |
|---|---|---|---|---|
| -Centro de documentación especializado en mujer y feminismo.<br>- Aula de lectura y ordenadores<br>- Espacio para el debate<br>- Biblioteca<br>- Aula audio-visual.<br>- Un rincón donde recger las aportaciones de las mujeres (se puede plantear una colaboración con la biblioteca municipal).<br>- Un lugar para estar<br>- Espacio para l@s niñ@s. | - Aula de psicomotricidad con espejos<br>- Danza, ejercicio físico,...<br>- Aula para guardar las cosas de la Batukada.<br>- Aula polivalente, privacidad media.<br>- En el caso de dividir el aula que no sea algo fijo, p.ej: biombos, correderas...<br>- Servicio de guardería puntual. | - Paneles para poner noticias que no se ven en otros lados.<br>- Quitar el escalón, poner todo el pavimento al mismo nivel.<br>- Una estructura móvil de madera, hecho con cubos. Para poder utilizarlo como escenario de un modo fácil. Además pueden crearse escenarios de diversos tamaños. Para realizar teatros, conciertos,...<br>- Exposiciones<br>- Espacio para poner plantas.<br>- Crear un pasillo central que comunique desde la entrada principal hasta la parte exterior trasera. Para ello habría que quitar los baños que hay actualmente y ponerlos en algún otro rincón.<br>- Decorado<br>- No darle una función especifica, espacio comodín para las cosas que surjan.<br>- Escenario<br>- Espacio donde habrá mesitas para tomar el te. Espacio de encuentro, informal, público totalmente. | -Respetar los usos que existen anteriormente, habrá que analizar algunas normas de convivencia.<br>-Bancos alrededor del árbol.<br>-Algo que llame la atención en la entrada.<br>-Un escenario móvil o estanco: danza, conciertos,...<br>-Terraza, espacio con mesas y sillas.<br>-Chabola<br>-Tirolina<br>-Zona abrigada del viento y del mal tiempo. Además puede usarse para guardar el mobiliario exterior.<br>-Cristalera<br>-Promover la diversidad deportiva.<br>-Cambiar el sitio de la caseta del compost, alejarlo un poco de la entrada principal.<br>-Concepto de extensión de la casa. | - Intercultural<br>- Mesas móviles, para poder moverlos de un espacio a otro, sacarlos a fuera o en un momento dado poder recogerlas y darle otro uso a este espacio.<br>- Abrir una puerta hacia el exterior.<br>- Espacio para la relacionarse. Poner una isla central para que la gente se reúna al rededor de esta.<br>- Es un aula muy grade, por eso analizar la posibilidad de dividir este espacio garantizando la intimidad.<br>- Sociedad gastronómica feminista.<br>- Una cocina más pequeña integrada en un aula polivalente. Espacio cerrado y diferenciado. |

| BEHE SOLAIRUKO GELA "IKUS-ENTZUNEZKO GELA" | LEHEN SOLAIRUKO GELA "GORPUTZ ADIERAZPEN GELA" | BARNE PATIOA | KANPOKO ESPAZIOA | SUKALDEA |
|---|---|---|---|---|
| -Emakume eta feminismoan espezializatutako dokumentazio zentroa.<br>-Irakurketa eta ordenagailu gela.<br>-Eztabaidarako gunea.<br>-Erakusleiho bat izatea, irekia.<br>-Liburutegia<br>-Ikus-entzunezko gela.<br>-Emakumeen ekarpena jasoko duen txokoa, dinamikoa (agian udal liburutegiarekin elkarlana planteatu daiteke).<br>-Egon lekua.<br>-Umeak egoteko espazioa. | -Psikomotrizitate gela, ispiluekin.<br>-Dantza, ariketa fisikoa,...<br>-Gela polibalentea, publikotasun neurtua.<br>-Erdibitzekotan zerbait ez finkoa, adib: bionboak, korrederak,...<br>-Batukadarako gauzak jasotzeko gela.<br>-Haurtzaindegi zerbitzu puntuala. | -Panelak beste lekuetan ikusten ez diren albisteak jartzeko.<br>-Espazio bizia.<br>-Koxka kendu, patioko lurzoru guztia maila berdinean jarri.<br>-Egurrezko estruktura mugikorra bat, egurrezko kuboekin egina. Eszenatoki moduan erabiltzeko era erraz batean. Erraz mugitu daiteke eta tamaina ezberdinetako eszenatokiak sortu. Antzerkiak, kontzertuak,... egiteko..<br>-Erakusketa lekua.<br>-Pasilo zentral bat sortu atzekalderuntz beste sarrera bat eginez, eta gaur egun dauden komunak beste leku batean kokatuz.<br>-Landareak jartzeko lekua.<br>-Apaindua<br>-Bereziki ez funtzio bat eman suertatzen diren gauzetarako espazio komodina.<br>-Te-a hartzeko mahaitxoak egongo diren espazioa. Topagune informala publikotasun osokoa.<br>-Eszenatokia | -Lehendik dauden erabilerak errespetatu, konbibentzia arauak nola uztartu aztertu beharko da.<br>-Zuhaitzaren inguruan eserlekuak.<br>-Atentzioa deituko duen zer edo zer sarreran.<br>-Oholtza mugikorra edo ez: dantza, kanta,...<br>-Terraza, mahai eta aulkiak dituen eremua.<br>-Txabola<br>-Baratza<br>-Tirolina<br>-Aterpea, haizetik eta eguraldi txarretik babesteko. Bestalde kanpoko mobiliarioa gordetzeko balio dezake.<br>-Kristalera.<br>-Kirol aniztasuna sustatu.<br>-Konpost txabolaren lekua aldatu, sarrera nagusitik pixkat aldendu.<br>-Etxearen luzapen kontzeptua. | - Interkulturala.<br>-Kanpoaldera zuzenean ateratzeko atea ireki.<br>-Mahai mugikorrak, espazio batetik bestera mugitu ahal izateko, kanpora atera edota momentu jakin batean mahaiak bildu eta sukaldea beste funtzio baterako erabilgarri izatea.<br>-Sukalde txiki bat gela polibalente baten baitan kokatua.<br>-Gela hau oso handia da, beraz espazio banatzeko aukera aztertu baina intimitatea bermatuz.<br>-Harremanetarako espazioa. Isla moduko bat jarri horren inguruan biltzeko jendea.<br>-Soziedade gastronomiko feminista.<br>-Espazio itxia eta bereizitua. |

## HAURREN GAIA

- Haurrek espazio konkretu eta finko bat izango dute etxean?

- Baiezkoaren kasuan: Zein aukera eta zein arrisku ditu horrek? Ze espazio izango da (akustika kontuan hartuta)? Espazio finko bat izan beharrean montatu/desmontatzen den espazio bat izan behar du? Hala bada, nolakoa eta non?

## SUKALDEA

- Ze tamainakoa?

- Sukalde handiaren aldekoek, mahaiak eta aulkiak mugikorrak? Erdian isleta handi bat jartzea egoki ikusten da, tailerrak egin ahal izateko?

- Sukalde txikiaren aldekoek, ze beste funtziorekin ikusten dute uztargarria espazio hau? Espazioa banatzekotan elementu itxiekin edo elemenu mugikorrekin?

## BARNE PATIOA

- Funtzio berezi bat eman behar zaio edo ez? Funtzio berezi bat eman behar izanez gero, zein izango litzateke?

- Atzekalderako beste ate bat irekitzea onartzen da?

# NIÑAS/OS

- ¿Las/los niñas/os necesitan un espacio fijo y concreto en la casa de las mujeres?

- En caso afirmativo: ¿Qué fortalezas y qué peligros tiene esa opción? ¿Cual será el espacio (teniendo en cuenta la acústica)? En vez de ser un espacio fijo, tiene que ser un espacio que se monta/desmonta? Si es así, ¿Donde y cómo?

# COCINA

- ¿De qué tamaño?

- Los que están a favor de la cocina grande, ¿Mesas y sillas móviles?, ¿ Se ve adecuado el poner una isleta en el medio para poder realizar los talleres?

- Los que están a favor de la cocina pequeña, ¿Con qué otras funciones se ve compatible este espacio?, En caso de dividir el espacio, ¿Con elementos moviles o fijos?

# PATIO INTERIOR

- ¿Hay qué dotarle de una función específica?, En caso de darle una función especifica, ¿Cual?

- ¿Se acepta la opción de abrir una puerta hacia la zona exterior?

Hauek dira eztabaidan atera diren ikuspuntu ezberdin nagusienak eta bukaeran adostasunean hartutako erabakia, gai nagusien arabera azalduta:Haurren gaia:

- Haurrek espazio konkretu eta finko bat edukitzea guztiz beharrekoa ikusten da Emakumeen Etxearen barruan. Amher-eko emakume askok gehienbat, haurrak beste norbaitekin uzteko zailtasunak dituztenez haurren espazio propio baten beharra dagoela argi dute.

- Momentu konkretuetan haurtzaindegi zerbitzua eman bai, baina ez da uste haurrentzako txoko propio iraunkor bat definitu behar denik. Bestenaz umeak uneoro bertan egotea ahalbideratuko dugu, emakumeak eta umeen zaintzaren arteko erlazio bultzatuz.

- Adostutakoa: Haurtzaindegi zerbitzua beti bermatua egotea, baino espazio finko bat ezarri gabe horretarako.

- Sukaldea:

  - Beste erabilera batzuekin uztartu beharko litzateke sukaldea, oso haundia baita tamainaz. Espazioa banatu daiteke, hondoko eremua tailerrak, eskulanak, bilerak, etab. egiteko erabiliz.

  - Amher-ekoentzat gune zentrala da eta ezinbestekoa da, honenbestez tamaina handiko sukaldea nahi dute.

  - Adostutakoa: Sukalde bat egon behar dela argi dago, batez ere, Amher-ek hasieratik egin duen eskakizun bat delako. Espazio handia denez, eremua banatzeko moduak egon behar direla adostu da, baina hauek mugikorrak izanik.

- Barne patioa:

  Ez da honen inguruan ezer eztabaidatu, beste bi puntuak garrantzitsuagotzat jo dira eta eztabaidari emandako denbora guztia eskaini zaie.

Estos han sido los principales puntos de vista que han salido en el debate y la decisión adoptada al final, organizados por los temas principales.

- Niñas/os:

  - Se ve totalmente necesario que las/los niñas/os tengan un espacio concreto y fijo dentro de la casa de las mujeres. Muchas mujeres de Amher tienen dificultades para dejar las/los niñas/os con alguien por lo que tienen claro que es necesario un espacio propio.

  - Muchas participantes no conciben la idea de definir un espacio propio fijo para las/los niñas/os, sin embargo sí debería ofrecerse el servicio de

guardería en momentos concretos. Si se crea el espacio, daremos pie a que las/los niñas/os estén en todo momento en la casa, impulsando y reforzando que sean las mujeres las que se encarguen del cuidado de las/los niñas/os.

- Lo consensuado: Se garantizará siempre el servicio de guardería, pero sin crear un espacio fijo para ello.

- Cocina:

  - La cocina se debería de combinar con otros usos, ya que tiene grandes dimensiones. El espacio se puede dividir utilizando el espacio restante para talleres, reuniones, manualidades, etc.

  - Para las mujeres de Amher la cocina es un espacio central y totalmente necesario, por lo tanto quieren una cocina grande.

  - Lo consensuado: Ha quedado claro que se necesita una cocina, sobre todo por la petición que realizaron desde el principio del proceso las mujeres de Amher. Considerando que el espacio es muy grande, se ha decidido que habrá modos de dividir el espacio, siendo estos de tipo móvil.

- Patio interior:

  No se ha debatido nada en torno a este tema, se ha dedicado todo el tiempo a los dos puntos anteriores, ya que eran de mayor importancia.

## 3_COLLAGE ARIKETA/ EJERCICIO COLLAGE

Saio honetan burutu beharreko "collage" ariketa aurkeztu da lehenik eta behin. Ariketa honen helburua, taulan ikusitako eremu horien diseinua irudikatzen hastea da. Horretarako egokienak diren eremu/espazioak aukeratu dira aldez aurretik:

- Kanpo eremua
- Sukaldea
- 1. gela: Ikus-entzun gela, liburutegia...
- Kanpo/Barne itxura: Fatxada, barruko paretak...
- Barruko patioa

Metodologia ondorengoa izan da:

- Talde txikiak:

Bost eremuak, bost mahai ezberdinetan banatu dira. Mahai bakoitzean eremu horietako, planoak eta argazkiak daude, baita margoak, guraizeak eta aldizkariak ere. Pertsona bakoitza gehien interesatzen zaion eremuko mahaian kokatu da, eta ordu erdia izan du bere mahaikideekin batera, espazioa nolakoa nahi duten irudikatu eta bertan duten materialarekin collage-a gauzatzeko.

- Plenarioa:

Talde txikietan garatutakoa elkar banatu dugu, talde bakoitzak bere lana aurkeztuz gainontzekoei.

Ariketatik ateratako emaitzen argazkiak ondorengoak dira:

Primero se ha procedido a presentar el ejercicio Collage. El objetivo del ejercicio ha sido la de empezar a visualizar el diseño de los espacios definidos en la tabla. Para ello, de forma previa se han elegido los espacios más adecuados para realizar el ejercicio:

- Espacio exterior
- Cocina
- Aula 1: Biblioteca, espacio audiovisual...

  Aspecto exterior/interior: Fachada, paredes interiores...

    - Patio interior

La metodología ha sido la siguiente:

- En grupos pequeños:

Se han repartido los cinco espacios, en cinco mesas diferentes. En cada mesa se han dejado planos y fotos del espacio, así como pinturas, revistas y tijeras. Cada participante del taller se ha movido a la mesa del espacio que más le interesaba, teniendo media hora para visualizar el nuevo diseño del lugar y utilizando los materiales anteriormente mencionados, plasmarlo en el papel mediante un collage.

- Plenario:

Cada grupo pequeño ha presentado a las/os demás participantes lo trabajado en su mesa.

Estas son las fotos de los resultados de los collage realizados:

**KANPO EREMUA/ESPACIO EXTERIOR**





Kanpo eremuan baratza egiteko espazio bat eta egonlekuak egotea proposatu zen, irudian ikus daitekeen eserleku erosoekin

En el espacio exterior lo que se propuso fue, un área de estar, con cómodas sillas como las que se ven en la imagen, y una zona donde poder hacer una huerta.

.

**SUKALDEA/COCINA**




Sukaldearen bitan banatzeko aukera egoteko proposamena egin da, horretarako gela erdibitu ahal izateko pareta mugikor bat egotea proposatzen da, nahi denean ireki eta itxi ahal izateko.

Bestalde sukaldearen funtzio nagusienetako bat ikastaroak egin ahal izatea izango denez, erdikaldean sua eta lanerako espazioa egongo den "isla" handi bat jartzea propoasatu dute.

Azkenik, kanpokaldera ateratzeko ate bat egongo litzateke.

En la cocina se ha propuesto poderla dividir en dos zonas. Para ello, se ha pensado en una pared móvil, para que se pueda cerrar o abrir cuando se desee.

Por otro lado, se ha planteado poner una isla grande en el centro del espacio que ocupara la cocina. Una de las principales funciones que albergará, será el de los cursillos, por lo que será necesario tener fuego y espacio central donde poder trabajar.

Por último, se abriría una puerta por donde se podría salir al exterior.

**1.GELA/ AULA 1**




Gela honen funtzio nagusiena ikus-entzunezko aktibitateak eta materiala gordetzeko lekua izango da. Garatutako proposamenean ondorengo elementuak bota dira: erdiko zutabearen inguran mahaiak jartzea, liburuentzako kaxekin egindako apalak egotea, eroso esertzeko besaulkiak edo kuxinekin egokitutako txokoak eta gurpildun mahaiak nahi denean mugitu ahal izateko. Bestalde, noizean behin bideo/pelikula/emanaldiak proiektatu ahal izateko panel txuri handi bat jartzeko aukera eta proiektore bat egongo liratezke.

Azkenik alaitasun eta argitasuna eskaintzeko asmoz, kolorez margotu eta landare ugari jartzea proposatu dute.

Las principales funciones de este aula serán, lugar de almacenaje de material y espacio donde hacer actividades audiovisuales. En el collage realizado estas han sido las propuestas realizadas: Poner mesas alrededor de la columna central, tener estanterías para libros hechos con cajas, sillas para sentarnos cómodamente o un espacio acogedor con cojines y con mesas móviles. Por otro lado, con idea de poder proyectar vídeos/películas/etc., se prevé el instalar un panel blanco grande y un proyector.

Por último, con idea de transmitir alegría y claridad al espacio, se ha propuesto colorear las paredes y poner plantas.

**KANPO ITXURA/ ASPECTO EXTERIOR**







Kanpo itxurari dagokionez, eraikinaren fatxadari argia eta kolorea emateko helburuarekin, paretetan muralak eta foko berriak jartzeko proposamena egin da. Bestetik, sarrera nagusiko eremuan dauden eskailerak kentzeko proposamena egin da, irisgarritasun oztopo guztiak ezabatuak izan daitezen. Atearen gainean Emakumeen Etxearen izena adieraziko duen kartela jartzea ere pentsatu dute, kanpotik argi ikusteko zein motatako etxea den, bestalde atzekoaldean ere muralen bat.

Azkenik, Emakumeen Etxea izango denaren kanpo eremua inguratzen duen itxituran, landare igokariak jartzea proposatu da, eremuari goxotasuna eta aldi berean intimitatea emateko helburuarekin.

En lo que respecta al aspecto exterior, se ha propuesto realizar murales en las paredes y poner focos de luz nuevos, con intención de dar claridad y color a la fachada y a los alrededores. Por otro lado, se hablado de quitar las escaleras de la entrada, para de este modo eliminar cualquier barrera arquitectónica que pudiera imposibilitar el acceso al edificio. Se ha pensado también en poner un cartel con el nombre de la casa de las mujeres encima de la puerta, para que se pueda ver de forma clara desde el exterior y por otra parte un mural en la parte trasera.

Por último, se ha pensado en poner plantas trepadoras en todo el vallado que rodea el patio exterior, con idea de dar un poco de intimidad y un toque acogedor al espacio.

**BARRUKO PATIOA/ PATIO INTERIOR**




Barruko patiorako ateratako ideien artean nagusiena, lurrean mosaiko bat egitearena izan da. Lehenengo solairuko pasiloetatik asko ikusten den eremua da eta bertan horrelako diseinu bat egitea polita izango litzatekeela pentsatu da. Honetaz gain, espazio honek beteko lukeen funtzio printzipala, "chill out" moduko espazio batena izango litzateke, lasai egoteko sofa edo ahulki txikiak ipiniz eta irakurtzeko aldizkari eta liburuekin.

Azkenik, apaintzeko landare ugari jartzea proposatu dute, baita sokak zintzilikatzea paretetatik, erakusketetako kuadro edota panelak bertan eskegi ahal izateko.

La principal idea del collage realizado ha sido el de dibujar un gran mosaico en todo el suelo del patio interior. Este espacio es muy visible por todo el primer piso, por que podría ser una buena idea el de crear un diseño de este tipo. Además, se ha propuesto crear una zona tipo “chill out”, donde poder estar tranquilamente en sofás o pequeñas sillas leyendo o descansando.

Por último, han pensado en poner abundantes plantas, así como cuerda o algún otro elemento donde se podrían colgar cuadros o paneles de diferentes exposiciones

## 4. AMAIERA/FINAL

Saioari bukaera ematen joateko, auzolan egun bat egitearen aukera proposatu da. Alde batetik, urtarrila arte ez zaionez prozesuari jarraipenik emango, egokia ikusi da abenduan egun bat ezartzea, modu honetan prozesuan sortutako etxearekiko motibazioa ez hozteko. Bestetik, espazioak irudikatu ostean, bertan ateratako elementuren bat gure eskuekin eraikitzea polita izango litzatekeela iruditu zaigu.

Prozesu guztian parte hartu duen jendeari doodle bat bidaliz zehaztuko da bai eguna eta bai bertan egingo den elementua ere.

Bukatzeko, balorazio dinamika bat egin da, parte hartzaileei 3 aldagaiez osatutako taula txiki bat betetzeko eskatuz. Hauek izan dira 3 aldagaiak:

- Metodologia
- Parte hartzea
- Nola sentitu naiz?

Para finalizar la sesión, se ha propuesto la posibilidad de realizar un día de auzolan. Por un lado, y con el objetivo de que no decaiga la motivación creada en torno a la casa, se ha visto adecuado definir un día de trabajo en diciembre, ya que hasta el mes de enero no se le dará seguida al proceso participativo. Por otro lado, nos parece que puede ser bonito una vez realizado el ejercicio de visualizar el espacio, el construir con nuestras propias manos algún elemento.

Tanto el elemento a realizar, como el día en el que se realizará el auzolan, serán definidos mediante un doodle que se les enviará mediante correo electrónico a todas las que han participado en el proceso.

Por último, se ha realizado una dinámica de valoración, pidiendo a todas/os participantes que rellenasen una tabla con las siguientes tres variables:

- Metodología
- Participación
- ¿Cómo me he sentido?